

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Osasunak urriaren 25ean irekiko du Buztintxurin ospitalez kanpoko larrialdietako bigarren zentroa Iruñeko eta Eskualdeko helduentzat

*Zerbitzu berriak San Martin Doktorea zentrokoen antzeko baliabide teknikoak eta profesionalak ditu, eta Iruñean eta eskualdean larrialdietako baliabideen eta osasun-garraioaren berrantolaketarekin batera irekiko da*

Asteartea, 2018.eko urriak 23

Osasun Departamentuak datorren ostegunean, urriaren 25ean, abian jarriko du ospitalez kanpoko larrialdietako zentro berria, Iruñako Buztintxuri auzoko osasun-zentroan. Modu horretan, arratsaldez, zerbitzu hori eskainiko zaio biztanleriari oro har eta bereziki hiriburuaren iparraldeko biztanleei, gaur, prentsaurrekoan, Osasun kontseilari Fernando



Ezkerretik eskuinera, Betelu, Domínguez eta Induráin aurkezpenean

Dominguezek azaldu duenez. Harekin batera egon dira Lehen Arretako zuzendari kudeatzailea, Santos Induráin, eta Ospitalez Kanpoko Larrialdietako Zerbitzuaren burua, Kiko Betelu.

Buztintxuri eskualdeko larrialdietako bigarren zentro bilakatu da, ekipamendu mediko eta osasun-profesionalen talde oso batekin; era horretan, Nafarroako hiriburuan ere kokatzen den San Martin Doktorea zentroarekin parekatzen da, laguntza-gaitasunaren aldetik. Zerbitzua arratsaldez emango du, helduen larrialdietarako, eta San Martin Doktoreak erreferentziazko zentroa izaten jarraituko du helduen eta pediatriako larrialdietarako, arratsaldez nahiz gaez.

Instalazioak egokitzeko eta ekipo medikoak erosteko 293.708 euroko inbertsioa egin behar izan da. Erradiologia-gela eta triaje-gela ditu larrialdiak baloratu eta lehenesteko, kontsulta medikoak eta erizaintzakoak eta erreanimazio- eta obserbazio-gela ere bai. Erradiologiako taldeak goizez ere artatuko ditu osasun-zentroetatik bidalitakoak, eta, era horretan, herritarrek eskuragarriago izango dute zerbitzua, eraginkorragoa izateaz gain.

Halaber, bizi-euskarri aurreratuko anbulantziaren edo ZIU mugikorraren basea izango da, eta eguneko 24 ordutan emango du

zerbitzua 112-SOS Nafarroa larrialdietako zentroarekin koordinatuta. Kokapenari esker, Iruñeko auzoetan eta eskualdeko herrietan, Argaren iparraldekoetan erregistratutako denbora-mendeko larrialdien erantzundenborak murriztu ahal izango dira.

Zerbitzuaren ordutegia 15:00etatik 20:00etara bitartekoa izango da asteko egunetan eta 8:00etatik 20:00etara bitartekoa larunbatetan, igandetan eta jai-egunetan. 22:00ak arte luzatzea aurreikusten da datorren urtearen hasiera aldera.

San Martin Doktorea zentroak egungo ordutegia mantenduko du; hau da, 15:00etatik hurrengo eguneko 8:00ak bitarte, astelehenetik ostiralera, eta 24 orduetan larunbatetan, igandetan eta jai-egunetan.

### **Larrialdiko eta emergentziako baliabideen berrantolaketa**

Zentro berria irekitzearekin batera, Iruñeko eta eskualdeko laguntza-baliabideak berrantolatzeko prozesua garatu da, larrialdien eta ospitalez kanpoko emergentzien arreta integrala hobetzeko asmoarekin, zerbitzuaren kalitateari nahiz erantzuteko gaitasunari dagokienean.

Hobekuntza horren esparruan, Buztintxurik eta San Martín Doktoreak hartuko dituzte orain arte arratsaldez Ermitagañako eta Rotxapeako zerbitzu periferikoei, Iruñean, eta Burlatakoek ematen zituzten larrialdiak; tipologia arineko kasuak bakarrik artatzeko gaitasuna zuten horiek.

Hiru zentro periferikoetan erizaintzako langileak egongo dira denboraldi baterako arratsaldez, oinarrizko larrialdiak artatu eta baliabideen berrantolaketari eta Buztintxuriko zentroaren irekierari buruzko informazioa biztanleei emateko, azken hori Iruñako eta Eskualdeko larrialdietako bigarren zentro bezala, San Martin Doktorea zentroarekin batera.

### **Anbulantzien iparra-hegoa berrantolaketa**

Larrialdietako baliabideak berrantolatzearekin batera, bizi-euskarri aurreratuko edo ZIU mugikorreko ambulanziaz eta oinarrizko bizi-euskarriko ambulanziaz birkokatuko dira. ZIU mugikorrei dagokienez, berrantolaketak efektu handiagoa du Nafarroa osoko larrialdiak eta emergentziak artatzeagatik, Tuterako eta Lizarrako Osasun-eremuak izan ezik.

Hiru ambulanziaz medikalizatutako edo ZIU mugikorrek beren basea Iruñeko hegoaldeko zonan (Kordobila, Trinitarios eta Aoiz kalea) zuten orain arte, eta kokapen berriarekin lehen bi baseak mantenduko dira, baina hirugarren ZIU mugikorra Buztintxuriko osasun-zentrorara aldatuko da.

Bizi-euskarri aurreratuko ambulanzien edo ZIU mugikorren irteerako base berriei esker, mendebaldeko, iparraldeko eta ekialdeko Nafarroako larrialdietara eta laneko eta trafikoko istripuetara iristeko denborak murriztu ahal izango dira, iparraldeko ingurabidera eta zona horietarako irteera-errepideetara sarbide askoz hobea izateagatik.

### **Burlatan ambulanziaz eguneko 24 orduetan**

Iparra-hegoa arteko banaketa berriaren bidez isokrona gutxi izatea espero da, eta oinarrizko bizi-euskarriko ambulanzien berrantolaketan ere errepikatuko da. Eguneko zerbitzurako lau unitateak Landabenen kokatzen ziren, eta hemendik aurrera bik base horretan jarraituko dute eta beste biak bi osasun-zentrorara eramango dira, Argaren iparraldean, zehazki Burlatara eta II. Zabalguneko osasun-zentrorara; eguneko 24 orduetan eskainiko dute zerbitzua.

Burlatan jarritako ambulanziaz behe solairuko lokal batean edukiko du basea, osasun-zentrotik metro gutxi batzuetara; lokala Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren esku jarri du Burlatako Udalak.



Oinarrizko bizi-euskarriko anbulantzien kokapen berriari esker, larrialdietara eta emergentzietara iristeko denbora murriztuko da Iruñeko eskualdeko iparraldean, hiriburuaren erdigunea zeharkatu beharrik ez baita izango, orain gertatu ohi den moduan, baliabide guztiak hegoaldeko zonan egoteagatik.

Osasunbideak-Nafarroako Osasun Zerbitzuak informazio-kanpaina bat egingo du, larrialdietako zentro berriaren irekieraren berri emateko; era horretan, publizitate-mezuak emango dira prentsan eta irratan, eta kartelak eta 10.000 liburuxka argitaratuko dira Iruñeko eta eskualdeko osasun-zentroetan banatzeko.